

STARTINNOVA

Aurkezpena

Aplikazio bat sortuko dugu non nerabeak gure proiektuaren protagonistak diren, hauek diru sarbiderik edo dirua lortzeko iturririk ez dituztenez aukera bat ematen diegu haien bizitza independenteari hasiera emateko, baina dirua erabili beharrean, puntuak lortuko dituzte, gero aisialdian edota beraiek behar dituzten materialetan inbertitzeko. Aplikazioaren bitartez komunitaterako ekintzetan edo lanetan jardun dezakete.

Helburua

Gure aplikazioaren heburua, gizartearen ongizatea bermatuz, nerabeak zereginak egitean datza, adibidez: ONGko kideak izatea, herriko garbiketan parte hartze aktiboa izatea, herriko sektore publikoa bermatuz haien lankidetzaz ezartzea... Hortaz, puntuak lortuko dituzte haien behar eta nahien gastuak murriztuz, hala nola, ibilgailu publikoenak, jaialdi ezberdinenak, ikasketen materialenak, kulturarena (zinema, teatruak...), etab. Horrela, gazteek independenteak izateko gaitasuna dutela erakutsiko dute, gizarteak hauengan duen irudia aldatuz. Hortaz, diru lortu beharrean, puntuak lortzen dituzte, azken finean, dirua irabazterako orduan gazteek edozer gauzetan gastatu dezakete, diru hori probetxuzko ekintza eta gauzetan inbertitu beharrean. Gure helburua puntuak emanez hauen garapena eta hobekuntza bermatuko dituzten ekintzetan inbertitzea da, horrela, gure aplikazioa erabiliko dituzten gazteak gizartean bilakaera eta ongia bermatuko dute, aldi berean, bizitza independente eta berri bat sortuz.